

ERDI-AROKO EUSKAL ERRI-IZENEN IDAZKERA

Aztertu dezagun beste larruki bat. 1138'garren urtekoa. Araba'ko Andre euskaldun batek Naxera'ko Miren Deunaren Errege-Elizari egin zion emaitza bat da.

(Barkatu, irakurle, baiña bidetik irtetzera noakizu. Atzo bertan -Jorraillak 19- Eusko Jaurlaritza Jaun batek Jaurlegian bertan kontatu zidanez onela eskuratu omen du, -eta argitaratu-, «traduktore ofizial» batek «en la Iglesia de Santa Maria la Real»: «Andra Mari Egiazkoaren Elizan». Bapo!).

Itzuli gaitezen azteru-bearra dugun XII mendeko larrukira. Izen-sail ederra damaigu; eta izen euskaldunak danak, baiña batzuk, izugarri aldatuak.

Ikus:

NAZARA	MAGNARIETA	SUFIA	URRECHA
ORO	MURGUIA	ZUUIATE	ESTIVALIZ
GARONA	ARZUENDONIA	MATHAUCO	VETRIGUEZ
OREITIA	ARZAMENDI	FRANCO	GALIA DE ASSONA
RIOTORTO	SAROCHIO	ZUAZU	SANCTO MARTINO
URANO	HAZI	VILLANOBA	TASPONTE
ARZUNIA	GARACHIO	MENDOZA	FORUNDA
ZURBANO	GAMIZ	ANNIO	OSO
ILLARRAZI	VIGERA	ALAVA	VILLA FRANCORUM

Garrantzi aundiko andrea zan, itxuraz, emaitza au egin zuan Maria Lopiz, testigu edo lekuko askok zilatatu bait zuten bere larrukia. Bere abizena, «Lopiz» aurrena, «Lopez» gero, eta «Lopiz», azkenean, idazten du. «Lapsus calami?» «Lumaren errua»? Baleike, baiña ez gorabera aundikoa, gure «E», «b» agoskatzen bait zuten askotan aiek. Garai artako euskal-izenen irakurketa za-

lantzatsua goa egiten duan gauza!

(Luma-erru bat aipatu dut. Zillegi bezait, Aldizkari onen 171'garren zenbakian gertatutako irar-uts edo inprentako uts bat aipatzea, gauzak bere tokian egoki ipini ditzadan: «Mitxelena'ri egin diogun aipu au bukatzeko, esan dezagun berak aipatzen duan MEIANA ori MEIANO dala Larrukian», azaldu zan 171 zenbaki ortan. Irarkolako tresnek esaldiaren azkena aldatu zidaten, azken ori onela bidali bait nuen nik: «aipatzen duan MEIANA ori ez ezé MEIANO bat ere bada larrukian. «Lapsus linguae, lapsus calami, lapsus machinae»: orrelako utsak errez gertatzen dira uts egillea oartzeke).

«Pro requiae animarum Patris et Matris meae Lupi Gonzabuez et Totae Lupiz; «Lopiz» irakurri dugu lenxeago; «Lupiz» orain. Aitaren abizen ori, «Gonzabuez», «Gonzalvez» agertzen da geroxeago. Larruki bat berean orrelako aldaketak maiz agertzen dira. Eta, aldaketak axolarik gabe egiteko oitura orrek ere, aski zalantzarri biurtzen ditu larruki zarrek ematen dizkiguten erri-izenak.

Urtegarrena edo «fexa» ziurtzeko, Erregea eta iru konde ta bi Gotzai aipatzen dizkigu: «Regnante imperatore Adefonso in Toletto et Legione et Alava eta Cesaraugusta, et sub eo dominante Naiara Comite Lope et Michael Felicis Comite Lope in Alava. Comite Latron in Bigera. Episcopus Sancius in Nagara. et Episcopus Sancius in Pampilona».

Euskeraz: «Albontsa Agintaria Toledo'n eta Leon'en eta Araba'n eta Zaragoza'n Errege dala, eta aren-pean, Lope Kondea Naxera'n, Mikel Lope Pelirena Kondea Araba'n, Latron Kondea Bigera'n agintari, eta Santso Naxera'n Gotzai eta Santxo Iruña'n Gotzai dirala».

Albontsa ori, Gaztelako VII'a duzu. 1138'an IV Gartzia zan Naparroa'ko Erregea. Eta Naparroa'koa ez eze baita Araba'koa ere. Gure Mari Loperena'k Gaztela'ko Erregea aipatzen du, ez Naparroa'koa. Errege gaztelarren, Euskal-erriaz-jabetu nai izate betiereko artan, Gaztela-zale ote genduan Maria? Edota, Errioxa'n bizi zalako jokatu ote zuan orrela? Azkeneko iritzi ontakoa naiz; Bigera'ko Kondea eta Naxerako Kondea, eta Gotzai, ere aipatzen bait ditu, ta emaitza, ain zuzen Naxera'ko elizari egiten bait dio, naiz ematen dizkion erriak, danak, arabarrak izan.

Asi gaitzezan orain bere larrukian agertzen zaizkigun erri oiek aztertzen.

Baiña aurretik beste oarkizun bat egin nai nizuke: Laterazko «mihi», -euskerazko «meri», «michi» idazten du larruki onek bein baiño geiagotan. «Michi» ori, «miki» agoskatzen zuten. Ots ordea! «CH» daramaten erri-izenak ere idazten bait ditu, ñola jakin itz oietan «CH» ori gure «TX» edo «X» bezela, edo aien «K» bezela ñola jakin itz oietan «CH» ori gure «TX» edo «X»

bezela, edo aien «K» bezela irakurri bear dugun? AZCHONA AZKONA dala dirudi; CHORELLA, KORELLA da zalantzarik gabe; eta URRECHA, URRETXA. Beste askotan ordea, ez da aiti erreza «CH» ura zer dan asma-tzea.

Orra or, beste eragozpen bat. Guk gaur egiten dugun izen zar aien irakurketa oso ziurra dala esan aal izteko, beste eragozpen bat.

Bi itz bakarrik ditu gure larruki onek «H»z idatziak: MATHAUCO eta HAZI, naiz inoiz «H»z idatzi oi diran beste erri-izen batzuk ere bere baitan ekarri:

MATHAUCO. Gaur egungo Matauko, Gazteiz'tik 7'ren bat kilometrorra, Alsatsu-bidean dagoan errikka. Kukulla'ko burni-barren larrukian (1025) «H»rik gabe dator: MATAUCO. Zergaitik erabili ote zuan «H»a 1138'ko gure larruki onen idazleak? Gogoak eman ziolako. Ez noski inoiz «H» ori agoskaruaz, Euskalerrian MATJAUKO H esan dalako! Orrelakoa bait zan orduango idazkeraren ganoragabekeria.

HAZI. Saiatu naiz billatzen, baiña ezin aurkitu izan dut, ziur HAZI au non zegoan. Abizena lez dator larruki ontan: «Fortun Albarez de hazi», baiña jakiña da, garai artan abizenak aitaren edo sendiko beste norbaiten izenez eta erriaren izenez tajutzen zirala. Euskeraz onela esango litzake abizen ori: Hazi'ko Fortun Albarena. Larruki ontan aipatzen diran erri eta pertsonik geienak Gazteiz'en inguruko zelaiekoak dira. Bada zelai ortan, muño txiki baten gainean, AZILU izeneko erri koxkor bat. HAZI ura eta gaurko AZILU, erri bera ote dira?

«H»z idatzia agertzeko, batere arrazoirik ez zuen erri onen izenak. Orduango lasaikeria.

ZUAZU. Izena dugu orduango lasaikeriaren beste adigarri bat. Batzuetan «H»z eta bestean «H»rik gabe agertzen bait zaigu: ZUHAZU Kukulla'ko Burni-Barren larrukian; ZUAZU (1132'ean, eta 1138'an). Zuazu, Zuazo, Zuaza, danak izen bera dira noski, eta bat baiño geiago dira izen ortako tokiak Araba'n, Bizkaia'n, eta Nafarroa'n. Izen ortako «H» zer dan berriz, argi dagoan gauza da: «G», inoiz ere. ZUHAZA=ZUGATZA.

ILLARRAZI. Kukulla'ko larruki aipatuan, HILLARRAZAHA; 1080'ko batean berriz ILHARRAZI. Erri bera ote dira? Gaur bada Ilarraza, Matauko eta Arkaute'ren artean, Gazteiz'en alboan. Madoz'ek, beste bat izan zala, Dulantzi edo Alegria'ren ondoan, diosku bere Iztegian; 1367'ko Urri-laren 20'ean XI'Albontsa'ren larruki batean agertzen omen da bigarren Ilarraza ori: ILARRAZA; «H»rik gabe.

ILHARRAZA'ren «H» a «L» bat da: ILARRAZA. Eta HILLARRA-

ZAHA'ren bigarrena «G» bat. Aurrenekoa berriz, lumalariaren txatxukeri utsal. HILLARRAZAHA=ILLARRAZAGA.

«ILLAR» edo «ILAR» izkiez asten diran toki izenak asko dira Euskalerrian. Baita Euskalerritik kanpo ere, bada Almeria'n ILLAR deritzan erria. Erri-izenen artean, gizakumeen artean bezela, berdiña izateak ez bait du sende izaterik esan nai.

MAGNARIETA. Orduango idazkera gaurkora itzuliaz, MAÑARIE-TA. Ziur non zegoan ez dakit. Bada Araba'n MARIETA bat gaur-egun, MARIAETA, Kukulla'ko Burni-Barren idazkian. Baiña ez da gure au. Au, Zuiá Aranean zegoan. «Monasterium de Magnarieta quod es in Sufia» Zuián zegoala esan dut, baiña Zuiá'ren alboko ZIGOITIA Aranean ere egon zitekean. Bi ÇUFFIA agertzen bait dira Kukulla'ko larrukian: «DE SUSO» eta «DE YUSO». Ura, gaurko ZIGOITIA da. Bestea, gaurko ZUIA.

VETRIGUEZ, iru eratara dator idatzia dokumentu ontan, VETRIGUEZ, VEITRIGUA, eta VECTRIGUA. Burni-Barren larrukiak bertiz, BETRIKIZ dakar gotik-idazkian eta BETRIQIZ galikan-idazkian. Erri bera dira danak, gaurko Arkaurte'ren alboan zegoana.

FRANCO. Orain bada Franco bat Trebiño'ko Konterrian. Bi errixka ziran XIII mende-aurrean: De Susu, Goikoa, eta de Yuso, Bekoa. Franco de Suso, 1257'ko larruki batean agertzen zaigu. Eta 1462'ko beste larruki batek FRANDESASO deitzen dio Franco de Suso orri. Gaztelearen barruan orrela aldatzen ba'dira itzak, pentsa nola aldatuko diran idaztietan, euskeratik laterara edo gazteleara igarotzen diranean. Kontuz,etimologi zaleak!

Izen euskalduna ote da Franco ori? Nola ez, ia atzo arte zeoro euskalduna izan dan Trebiño'ko Konterrian? Franko ori, Kukulla'ko Burnibarren larrukian, 1025'an, PRANGO azaltzen zaigu. Prango'ren nundikoa? Ez dakit. Baiña «ANGO» atzikia izen askotan dakusgu: DURANGO, KUARTANGO, BERANGO, ABANDO...

ARZAMENDI. Berdin idatzia. 1083'ko larrukian. ARÇAMENDI («ç») Burnibarranean. Araba'ko Iparraldean, Luko'ren alboan zegoan errixka.

ARZUNIA. Ez dakit eskier non zegoan. Bearbada Gazteiz'tik 5 kilometrora egoaldera dagoan GAZTELU'ren alboan. Gaztelu'ren ondoan bait zan ARZUNGANA zeritzan lurralde bat «ARZUNIA'ren Gañean».

ASSONA. Inñolaz ere oraingo IXONA da, Estibalitz'tik ez urruti. Emakume izena ere izan zan ASSONA. Ala, Eneko Arista'ren Naparroa'ko lenen Erregearen alaba, ASSONA, Muza Ben Muza Tudela'ko Jaun maometartarekin ezkondu zan IX mendean. Osaba zuan Muza ura. Garai artan Eusko eta

maometar aundikien artean maiz egiten ziran, orrela ezkontzak.

RIOTORTO. Auxe bai ez dakidala non zegoan! IBAI OKERRA esan nai du. Ez ote da euskal-izena, laterara biurtua? RIOTORTO=IBAI OKE-
RRA? OKERRIBAI? ZEAR-IBAI?

ZUUIATE. Abizen bezela dator: «et illud mazanare de Murgia, cun casis de Alvaro de Zuuiate;... quantum ego ibi habeo... terras, vineas...» Murgia, Zuia'n zegoan eta dago. ZUUIA, ez ote da ZUIA bera? Eta, naiz Zuia bera ez baiña ango errixka bat izan, Zuia'n zegoan dana dala. Ara ba, or, Araba'ren ipar-iparrean, Zuia Aranean, nola maastiak lantzen ziran XI mendean! Eta garrantzi aundikoak ziran noski orduango masti aiek Zuia'n, an lantzen ziran igali landareetatik bi bakarrik aipatzen bait ditu larrukiak: sagastiak eta maastiak. Sagardoa eta txakoliña egiteko sagasti-mastiak, inñolaz ere.

TASPONTE. Gaur TRESPUENTES. Uritxo zarra; erromatekoa. Erromatarrek an egindako zubiaren alboan dagoana. TRASPONTE jarri zioten aiek izen, IRUÑA guda-urriaren azpian zubiz beste aldera zegoalako. Trasponte'tik etorri de Trespuentes. Ara nola aldatzen diran izenak lateratik gaztelerara, naiz bi izkuntz oiek ama-alabak izan. Nola ez ote dira aldatuko euskeratik erderetara?

Amaitzeko, -luze bait goaz-, Madoz'ek bere Iztegian, 1849'an idatzitako bi pitxikeri esan nai dizkizut:

Urte ortan 1849'an errikoxxor orrek bi apaiz omen zituan beretzako bakarrik. Gaur baiño ugariago ziran apaizak! Bi zubi ere bai omen zituan eta aietako bateri MOMARIO esaten omen zioten. Gaur MAMARIO esaten diote: Puente Mamario. Laterazko itza ote?

Ona beste gauzatxo au ere: Trespuentes ortan, «hay muchos erizos de mar petrificados... que llaman piedras de Santa Catalina. Suelen engastar en plata las más pequeñas de estas atribuyéndoles supersticiosamente efectos extraordinarios.

¿Zillarez kokatu arri biurtutako itxas-lakatzak, alajaña! Ain ugari ote zerbilkiten trespuentetarrak zillarra? Eta lepotik zintzilika jarri! Eskerrak arkaiztutako itsas-lakatzek arantzik ez dutela! Bestela ondo gorrituak aurkitubearrak ziran noski ango jendeen paparreko eta bularreko larruak!

Latiegi'tar Bixente